



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/02/12

Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak neurri fiskalen gaineko Foru Arau Proiektu barria aurkeztu dau Batzar Nagusien aurrean

José María Iruarizaga Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak, joan dan urtarrilaren 30ean foru gobernuak onetsi eban zerga neurrien eta inbertsino funtsen gaineko Foru Arau Proiektua aurkeztu dau gaur goizean Bizkaiko Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen aurrean. Holan emon jako hasieraa hainbat neurri fiskal Batzarretan izapidetzeko prozesuari. Iruarizagak adierazo dauenez, bere helburuen artean “ekintzailetzea eta enpresa gehiagoren ezarpena sustatzea, koalifikazino maila handiko beharginak erakartea, elusino fiskalaren kontra burruketea eta diru-bilketarako gaitasunari eustea” dagoz.

Ogasuneko foru arduradunaren agerraldia, Batzarretako Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeen agerraldi eskariak dirala eta egin da. Talde biek araudi barri horren eraginaren gaineko informazioa eskatu dabe, Europa mailako inbertsino funts barrien tratamenduan eragina daukalako eta aldaketak sartzen ditualako zerga garrantzitsuetan: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergan, Ondarearen gainekoan, Soziedadeen gaineko Zergan, Ondare Transmisinokoan, Ondorengotzen eta Dohaintzen zergan eta kooperatiben araubide fiskalean, besteak beste.

Batzarretako taldeen aurrean izan dauen esku-hartzean, “proponidu diran zerga neurri barrien helburua, horreetako batzuk barritzaileak, 2013an bultzau genduan erreforma fiskalaren betete mailea hobetzea eta politika fiskal zuzenagoa, progresiboagoa eta eraginkorra lortzea dala” azaldu dau José María Iruarizagak. Erreforma hori, Aldundiko gobernu eusten daben alderdi biek, EAJ-PNVk eta PSEk, adostu eben, eta Alderdi Popularrak be bat egin eban eurakaz.

Foru Arau Proiektuak alde bi ditu: lehenengoan, Europa 2020 Estrategiaren (EBko hazkunderako eta enplegurako agenda) barruan barrikuntzea eta enpresen finantzaketara bultzatzera zuzendutako Europako funts jakin batzuen zerga aldeko tratamendua ezarten da; bigarrenak hainbat zergaren gaineko neurri zehatzak ezarten ditu eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra aldatzen dau.

Foru Ogasuneko arduradunak azaldu dituan aldaketa azpimarragarrienen artean, Soziedadeen Zergaren tipo nominalaren murrizketea dago (gaur egungo %28tik %26ra 2018an eta %24ra 2019an pasauko da, eta %24tik %22ra eta %20ra mikro-enpresen kasuan). Pertsona fisikoen arloan, ekintzailetzarako jarduerara bultzatuko daben neurriak proponiduten dira, kenkariak sartuz mikro-enpresetan eta enpresa txiki eta ertainetan egin behar diran inbertsinoetarako, baina, gainera, etxebizitzaren alokairuarengaitik ezarten diran kenkariak handitu egingo dira 30 urtetik beherakoen kasuan, %25etik %30era pasatuz.

BATZARRETAKO TALDEEN ERETXIA

Agerraldia eskatu daben talde bien izenean, Asun Merinero batzordekideak azpimarratu egin dau politika fiskalaren helburua aberastasuna hobeto banatzea izan behar dala, eta



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

proponidutako neurrien parte handi bat “zerga arloko partxea” baino ez dala esan dau. Preminazko prozedurea erabilita hartu izana kritikau dau, “Batzarretako eztabaidea mugatu egiten dauelako”. Arantza Urkaregi EH Bilduko bozeroaleari jagokonez, proponidutako erreformeagaz batera aurkeztu dan Txosten Ekonomikoaren aurreikuspen batzuk “ipingi” bat baino ez dirala adierazo dau, eta neurri horreetako askok diru-bilketaren murrizketea ekarriko dabela gehitu dau. Aurreratu dauenez, bere taldea ez dator bat zergen erreformaren joera horregaz. Hori dala eta, zuzenketa-eskeak aurkeztuko ditu Batzarretan izapidetuko dan epealdian.

Oposizinoko gainerako taldeen aldetik, Javier Ruiz Talde Popularreko bozeroaleak, hobeia dan agertoki ekonomikoaren aurrean neurri fiskal gehiago hartu beharra azpimarratu dau, aurreko erreformea krisi eta atzeraldi testuingururako egoalako pentsauta, eta pozik agertu da, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek adostasuna lortzeko erakutsi daben jarrera dala eta. Talde Mistoko Arturo Aldecoak, bere aldetik, hiru taldeen arteko akordio zabala albiste ona dala adierazo dau, eta Batzarretako gehiengoak onartu ahal izango dituan zuzenketa-eskeen bitartez laguntzeko prest dagola iragarri dau.

Euskal Sozialistak taldeko Ekain Rico eta Euzko Abertzaleak taldeko Jesús Lekerikabeaskoa, proponidutako erreformaren alde agertu dira, Bizkaian Ongizate Egoereari eta zerbitzu publikoei eusteko aurrera-pausua izango dala adierazoz, eta, Bizkaiko Batzar Nagusietako Osokoaren aurrean behin betiko aurkeztu aurretik, aurkezpenagaz eta Batzordean zuzenketa-eskeak eztabaidatuz orain hasi behar dan erreformaren izaera “jasangarria eta inklusiboa” azpimarratu ditu.

NOTA DE PRENSA
12/02/18

El Diputado Foral de Hacienda y Finanzas presenta ante las Juntas Generales el nuevo Proyecto de Norma Foral de medidas fiscales

El Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha presentado esta mañana ante la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia el Proyecto de Norma Foral sobre medidas tributarias y de fondos de inversión, aprobado por el gobierno foral el pasado 30 de enero. De esta manera se inicia el proceso de tramitación parlamentaria de una amplia batería de medidas fiscales que, según Iruarrizaga, persigue los objetivos de “fomentar el emprendimiento y la implantación de nuevas empresas, atraer personal de alta cualificación, combatir la elusión fiscal y mantener la suficiencia recaudatoria”.

La comparecencia del responsable foral de Hacienda se ha producido como consecuencia de sendas solicitudes por parte de los grupos junteros Podemos Bizkaia y EH Bildu. Ambos habían pedido información acerca de la incidencia de la nueva normativa, dado que afecta al tratamiento de los nuevos fondos de inversión europeos e introduce modificaciones en los tributos más importantes: el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, el de Patrimonio, el Impuesto sobre Sociedades, el de Trasmisiones Patrimoniales, el de Sucesiones y Donaciones y el régimen fiscal de las cooperativas.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En su intervención ante los grupos junteros, José María Iruarrizaga ha explicado que “las nuevas medidas tributarias propuestas, algunas novedosas, tienen como objetivo mejorar el grado de cumplimiento de la reforma fiscal que impulsamos en 2013, y lograr una política fiscal más justa, progresiva y eficiente”. Dicha reforma fue consensuada por los dos partidos que sustentan el gobierno de la Diputación, PNV y PSE, a los que se sumó el Partido Popular.

El Proyecto de Norma Foral consta de dos partes: en la primera se establece el tratamiento tributario de determinados fondos europeos destinados al impulso a la innovación y la financiación empresarial, en el marco de la Estrategia Europa 2020 (agenda de crecimiento y empleo de la UE); la segunda establece medidas concretas en torno a diferentes tributos, y modifica la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

Entre las modificaciones más destacadas expuestas por el responsable de la Hacienda Foral se encuentran la reducción del tipo nominal del Impuesto de Sociedades (que pasa del 28% actual al 26% en 2018 y al 24% en 2019, y del 24% al 22% y al 20% en el caso de las microempresas). En el ámbito de las personas físicas, se proponen medidas que fomenten la actividad emprendedora, con deducciones para inversiones en microempresas y Pymes, pero también se establecen incrementos en la deducción por alquiler de vivienda para menores de 30 años, que pasa del 25% al 30%.

OPINIÓN DE LOS GRUPOS JUNTEROS

En nombre de los dos grupos que solicitaban la comparecencia, la juntera Asun Merinero ha puesto el acento en que el objetivo de la política fiscal debe ser la redistribución de la riqueza, ha calificado como “parcheo fiscal” buena parte de las medidas propuestas, y ha criticado que se haya adoptado el procedimiento de urgencia porque “limita el debate parlamentario”. Por su parte, la portavoz de EH Bildu Arantza Urkaregi ha calificado como “un apaño” algunas de las estimaciones del Informe Económico que acompaña la reforma propuesta, ha advertido que muchas de sus medidas traerán consigo una reducción de la recaudación, y ha adelantado que su grupo no coincide con esta línea de reforma tributaria, por lo que presentará enmiendas en el periodo de tramitación parlamentaria.

Por parte del resto de la oposición, el portavoz del Grupo Popular Javier Ruiz ha incidido en la necesidad de nuevas medidas fiscales ante un escenario económico más favorable, frente a una reforma anterior pensada para un contexto de crisis y recesión, y se ha felicitado por la disposición de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos para lograr un consenso. En representación del Grupo Mixto, Arturo Aldecoa ha señalado que este amplio acuerdo entre los tres grupos es una buena noticia, y ha anunciado su disposición a colaborar a través de enmiendas que puedan ser incorporadas por la mayoría de la Cámara.

Ekain Rico, por el grupo juntero Socialistas Vascos, y Jesús Lekerikabeaskoa, por Nacionalistas Vascos, han mostrado su apoyo a la reforma propuesta, señalando que la misma va a suponer un paso adelante en el mantenimiento del Estado del Bienestar y de los servicios públicos en Bizkaia y han reafirmado el carácter “sostenible e inclusivo” de una reforma que inicia ahora el periodo de presentación y debate de enmiendas en Comisión, antes de su presentación definitiva ante el Pleno de las Juntas Generales de Bizkaia.